

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 244. alea - 2019ko urria



**“Martxan da Kultur Mahaia;
Jar gaitezen!”**

G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



Calbeton

JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

A
D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Hondartza ondoan
Urte gustian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



**Argazkilaria
Ander Salegi**

(argazki erreportaiak, photoshop-eko
erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia; telarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

10

ALBISTEAK

Itziarko auzia elkarlanaren bitartez gainditzeko "borondate irmoa" agertu dute



11

ELKARRIZKETA

Deban sortu berri den Kultur Mahaiaren nondik norakoak izan ditugu hizpide



12

ALBISTEAK

Mintzalaguna, Euskaraldia, Tene Mujika Beka, *Amasa Gara* ekimena...



14

EUSKAL JAIA

Aurtengo Euskal Jaiaren errepasoa egiten duen irudi bilduma



16

B. GAZTEA

Berriketan Gaztea atala bueltan da aldizkarian. Mendata ikastetxeko 13 ikasle, kazetari lanetan



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonia: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
Euskara Elkartea Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskututz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

San Rokeetako glosario laburra A-tik Z-ra



Ausardia: 18 urterekin, eta bakarrik, zezenketetan musika-instrumentua ez jotzeko eskubidea aldarrikatzea. Eta onarpena lortzea!! Aupa neska!!

Elkarlana: helmugarako bidezidorra. Ezer eskatu gabe txosnagunerako pankarta egin digutela konturatzea, gure kontakizunerako laguntza jasotzea, urtean zeharreko bilera guztiek txosnagunearan sortzen dutena gozatzea. Txosna batzordeko kideei gure miresmena.

Festa: euria, bere nagusi naturaren esanetara, gure aldean lerratu dela jabetzea. Udaleko bozgorailutik txartelen

dirua itzuliko dutela entzutean, euritakoak harrika bota eta euripean dantza eta barre egitea, egurrezko anfiteatoren barrutik txistu-hots eta oihiak ateratzen diren bitartean.

Magia: hainbat karteletatik kontzentrazioetarako hitzorduak desagertu arren, pankarta atzean jendea ugaritzen doala ikustea.

Poza: gizon bati, neska gazte bati "orain gutxi arte joaten nintzen baina nazkatu nintzen!" entzutea.

Umorea: kartel bat edo beste kendu diguten arren, iaz baino "badaezpada-ko" gehiago sobratu izana ondorioztatzea.



Zirrara: lau zezen plazatik Osiorako bidea trostan desegiten ikustea. Berriz beren artadi-zelaian irudikatzea. Distira beltz hori, eguzki handiaren azpian. Pilar eta Antoniorekin, adibidez.

Debako Zezenketen Aurkako Taldea

Jai eredu herrikoi eta parte hartzaile baten alde!



Debarock Kolektiboa 2008. urtean Debako musika taldeak bultzatu eta entsegu gela duin baten beharrari erantzuteko sortu genuen taldea da.

2011. urtean, Debarock Kolektiboak jaietako kontzertuak lotzeko ardura hartu zuen lehenengo aldiz, aurreko urteetako musika eredu irauli eta jai eredu herrikoi, parte hartzaile eta euskaldunak bultzatzeko asmoz. Izan ere, ardura hori Debarock Kolektiboak hartu aurretik, azpikontrataturako enpresa batek burutzen zuen zerbitzu hau; diru kopuru baten truke, noski.

Urtez urte egindako lanaren ondorioz, egungo euskal musikaren erreferen-

rentziako taldeak izan ditugu gurean eta Deba Euskal Herriko kontzertu zaleen mapan kokatzea lortu dugu, herriko musika taldeei bultzada nabarmena emateaz gain.

Gauza asko lortu diren arren, auto-kritika egiten dugu; ez dugu lortu herritarrek kontzertuen antolakuntzan iniziatiba hartzea. Aurten azken urteetako parte hartze baxuena izan dugu bileretan eta ardura guztiak pertsona gutxi batzuen esku geratu dira. Pertsona hauek, gainera, urte askotan ibili dira ardurak hartzen, horrek suposatzen duen desgastearekin; erreleboa behar da. Kontzertuen antolakuntzan aritzeak desgaste handia suposatzen

dio, era berean, Debarock Kolektiboari. Gure urteko jarduna alde batera lagatzen dugu jaietako kontzertuak antolatu ahal izateko.

Hau guztia esanda, Debako musikari, musikazale eta herritar guztioi jaietako kontzertuen antolakuntzan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Era berean, aipatutakoak kontuan hartu eta jaien antolakuntza eredu birpentsatu eta herritarren parte hartzea bultzatzeko tresnak garatzea eskatzen diogu Udalari.

MUSIKA HERRITIK ETA HERRIAREN RENTZAKO! Jai eredu herrikoi eta parte hartzaile baten alde!

Debarock Kolektiboa

“Salda badago!”

Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak



Badatoz Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak! Azaroaren 1, 2 eta 3an izango dira Durangon, eta Debako talde bat bertan elkartuko gara izena eman duten 2.000 emakume baino gehiagorekin.

Mugimendu feminista autonomoak mugimenduaren ildo estrategiko nagusiak eztabaidatzeko antolatutako jardunaldiak dira. Lehenak 1977ko abenduan izan ziren, Leioan, eta geroztik momentu ezberdinetan antolatatu dira, unean uneko errealitate eta premiei erantzuten zieten eztabaidagaiak landuz.

Salda badago, zergatik?

“Su motelean luze irakin dugun iraultza gara, salda gara. Hamaika osagai eta mila zaporekoa. Ez dago errezeta bakarra. Orotarikoak gara, anitzak, zahar bezain berriak, handik eta hemendik datozenak, doazenak; eta badakigu nahasita sendotu egiten garela”. “Lehengaiak baditugulako, salda badago. Mugimendua garelako, bizitza bizigarri egitera gatzelako, iraultzan garelako, indarkeriei eta zapalkuntzei planto egin diegulako. Feminismoan gara eta mugimendu feministan gaude, eta bai, badago zer edan. Borborka ari da aspaldian, eta gainezka egingo du azaroan”.

Jardunaldi hauetako hiru egunean zehar bost ardatz jorratuko dira:

- Mugimendu feministaren erraieki begira
- Gure bizitzak erdiguneratzeko

agenda partekatua

- Indarkeriarik gabeko bizitzak eraikitzen
- Gorputzak, burujabetzak eta dekolonialitatea
- Sexualitateak

Ardatz hauei erantzunez mahai inguru nagusiak eta ponentziak egingo ditugu, baita gai desberdinak lantzeko tailer eta eztabaida, ikuskizun eta erakusketa anitzak ere.

Adibide bezala, hurrengoak eskaintzen ditu jardunaldi feministako egitarauak: *Agroekofeminismoa, elikadura burujabetza eta feminismoak eskutik* (Etxaldeko Emakumeak); *Pribilegio gabe, ez dago zapalketarik, ez zuriketarik, ezta jabetzarik ere* (EHko emakume razializatuen sarea); *Gorputzaren zilegitasuna mintzaide politiko gisa* (Medeak); *Zauria(k). Eromena. Gorputza. Feminismoak dokumentala* (Bullerak eta Zikutak); *Borrorak elkar gurutzatu, denok aske izan arte* (EHko Emakumeen Mundu Martxa), eta abar luze bat. Informazio gehiago nahi izanez gero, edota egitaraua ikusteko, saldabadagojardunaldiak.eus webgunera jo dezakezue.

Bestalde, **Lumaltik Herriak Debako Talde Feministarekin proposatutako lanaren baitan, azaroaren 7an Lolita Chávezen (Aura Lolita Chávez Ixaquic) hitzaldia izango dugu Debako ispiluen gelan.** Lolita lurraren eta bizitzaren defendatzailea da, Kí'ché' herrien Kontseiluko bozeramailea eta Guatemalako herri indigenen eskubideen defendatzailea, baita feminista komunitarioa ere. Ez galdu aukera!!

Debako Talde Feminista



Hori, lagun

Ez naiz nire buruarekin harro dagoen pertsona. Akats ugari ditudala sentitzen dut eta, nola ez, baita akatsak lorpen guztien gainetik daudela ere.

Baina bada harrotasuna sortzen didan hori ere. Lagunak. Lagun ditudan horiek guztiak deskribatzeko hitz eder, hunkigarri eta politez bakarrik josten ditut esaldiak. Beti esaten diet “zer nolako zortea dudan zuek bezalako lagunekin kontatzean”, eurek barre egiten dute, ez dakit ziur zergatik; agian lotsa sentitzen dute, agian eurek ere hala pentsatzen dute ingurura begiratu eta gu ikustean, ni tartean.

Horrek egiten nau zoriontsu; nik inguruan ditudan zoriontsu egiten ditudala pentsatzeak, baita zoriontasun hori azaleratzeak ere.

Kontziente naiz eskerrak ematen pasatzen ditudala momentuak; eskerrak unibertsitateko lanak egiten laguntzen dizkidanari, eskerrak egun txar horietako batean irribarrea ateratzen didan hari, edota elkarrizketa sakonak izaten ditudan hari. Beti esan didate oraina bizitzeko, orain sentitzen dudana orain egiteko, gaur egin dezakezun hori bihar egiteak zentzurik ez duela eta, nahiz eta “inoiz izan baino, hobe da berandu” horrek sarritan ez duen balio, lagunekin konpartitzen ditugun uneak hobe direla momentuan eskertzea, gozatzea eta bizitzea.

Badakit lagun ditudan horietako norbaitek begiak hitz hauen gainean finkatuta izango dituela, baita oraintxe harrotasunak beteko duela bere gorputza ere.

Adiskide, neska, mutil, sentitzen zarena sentituz, beti izango gara hori, LAGUN.

ZERGATIK DA ZERUA URDINA?

Eguzkiak ortzadarraren kolore guztiez osaturiko kolore zuria igortzen digu, zortzi bat minutuan iristen dena Lurraren atmosferaraino. Eguzki-argiak, bere oxigeno eta nitrogeno atomoen gainera, beste partikulekin batera atmosfera zeharkatzen duenean, argi infragorrietan, gorria, laranja eta horia, gehienak ez dira batere aldatzen; luzera laburragoko izurdura dutenak, ordea, ultramoreak –urdinak eta moreak, kasu sakabanatu egiten dira. Fisikan frekuentzia ezberdineko izurdurek material bat zeharkatzean izaten duten banakatzea da sakabanaketa; eta, Rayleigh-en sakabanaketa deitzen zaio, 1871n hark aurkitu zuelako, eta, zeruari edo, hobeto esan, atmosferari urdin kolorea ematen dio.

Sakabanaketak, ordea, atmosferako eraginez gainera badu zerikusirik eguzki-argiak dakarren angeluarekin ere. Egunez, argiak Lurrarekiko dakarren angelua handia da, eta gehien sakabanatzen den kolorea morea da; baina, gure begientzat ikusgarriena urdina da; beraz, urdina da ikusi ohi dugun zerua. Egunsentian eta ilunabarrean, atmosfera era etzanagoan zeharkatzen baitu argiak, atmosfera lodiagoarekin egiten du topo eta honek gehiago zurruputzen dizkio kolore urdinkarak –izurdura laburreko luzerak– eta bidea zabal uzten die horiei, laranja eta gorritzei –izurdura luzekoak direnei–.

Eguzkitik zuzenean datorkigun argiak galdua du bere kolore urdinaren zati bat eta horizta ikusten dugu Eguzkia.

Ilargitik edo orbitan, atmosferarik ez dagoenez, ez dago molekularik argia sakabanarazteko, eguzki-argiaren izurdura laburreko luzera guztiak berdin etortzen dira; beraz, toki horietatik zuri ikusten da Eguzkia eta zerua edo beste aldea

beltza da.

Marte planeta gorriak oso atmosfera fina duenez, argi urdina ezin da planetaren barrura sakabanatu, eta horregatik ageri zaigu gorri. Hala ere, Marteko ilunabarrak urdinkarak dira, orduan argiak atmosfera gehixeago topatzen baitu sakabanatu ahal izateko.

Zer dela eta da itsasoa urdina?

Itsasoaren kolorea ez da zeruaren isla; horregatik, itsasora sartu eta eskuekin ura astintzen dugunean, gardena dela ikusten dugu. Urrutiagotik begiratuta, urari errazago zaio izurdura laburak baino luzeak zurrupatzea eta, berriro ere, tonu urdinak dira sakabanatu eta kolorea ematen diotenak. Itsasoko urdin kolorearen intentsitatea eguzki izpiak zurrupatzeko berak daukan ur-kantitatearen arabera da. Zenbat eta uretan sako-nagora sartu orduan eta intentsitate gehiago du urdinak; sakontasun txikiagoan, urdin argiagoa. Sakabanaketa orain ere.

Ozeano guztiek ez dute kolore bera. Badira, urdinak baino gehiago, berdeak ematen duten urak ere. Itsasoan sakabanatu aurretik alga eta sedimentuen antzeko gauzeekin topo egiten dutelako gertatzen da hori, haietatik jasotzen baitute kolorea.

Benetan, zeruak ez du batere kolorerik. Urdin ikusten dugu; eguzki-izpiek, atmosferan dantzari dabilzan ozono, hauts eta partikulekin topo egitean, oztopatua aurkitzen dute pasabidea, eta sakabanatu egiten dira gure zeru-sabaiari berea duen kolore urdina emanez.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro



Seven Clovers
Irish pub
943 191 295

AUKERA
INMOBILIARIA
www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95
API 447

Esker oneko aitortza Debako odol-emaileei

Urriaren 19an hitzordua jarrita zuten Debagoiena eta Debabarreneko odol-emaileek Eibarren. Urtero bezala, eguerdian ongi-etorria egin zieten odol-emaileei eta Untzaga Plaza hotelean guztiak elkarrekin bazkaldu aurretik, omenaldia egin zieten urteetan odola ematen duten boluntarioei.

25, 40, 50, 60 eta 75 aldiz odola eman dutenei diploma eta oroigarria eman zieten Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko ordezkariak, esker onez. Herrika antolatuta banatzen dira oroigarriak eta diplomak, eta guztira Debako zortzi ordezkariak jaso dute omenaldia.

25 aldiz odola emateagatik, Antxon Etxeberria, Ana M^a Manuel eta Ignacio Olazabal omendu dituzte.



40 aldiz odola emateagatik, Maria Teresa Iriarte omendu dute. 50 aldiz odola emateagatik omendu dituztenak Iñigo Aperribai eta Isaak Arrizabalaga dira. 60 aldiz odola eman duen Martina Zubizarretak eta Raul Lizazaburuk (75 ateraldirekin) ere jaso dute esker oneko aitortza.



MATTIN URBIETA

Zeinen ordua?

“Ordu bietan. Ordu bietan ixten dituztela tabernak Frantzian!”. Nola ez, itxi baino ordu bete lehenago iritsi gara gu taberna inguruetara. Badakizue, bakoitza barneko erlojuaren erritmora bizi da eta... noski, Debako ordutegia zeharo atzeratuta doa Hossegorrekoaren (eta ia guztien) aldean. Berandu afaltzen duena beranduago irteten da, nahiz eta gero denok batera botatzen gaituzten tabernetatik.

Giro petrala egin digu biharamunean. Uda amaitu da! Izan ere, lerrook argitaratzen direnerako, neguko ordutegia izango da gure egunerokotasunaren uztarri. Fisikoki orduak berdin igaroko diren arren (argiaren abiaduran joateko edota zulo beltz batera gerturatzeko asmorik ez baduzue behintzat, egin kasu Albert-i), bati baino gehiagori egingo zaizkio laneko orduak luze, eta eguna motz.

Gaur egun darabilgun udako ordutegia, edo ordu aldaketa, ezarri zuen lehen herrialde europarra Alemania izan zen, Lehen Mundu Gerra betean, 1916an (wikipedia dixit). Gure ordu-eremua ere Alemaniak duen bera da, Francok 1940an ezarria, Gerra Zibilaren ondoren eta Bigarren Mundu Gerra betean. Ingalaterrak ere aldatu zuen, baina gerraren ondoren aurreko ordu-eremura itzuli zen. Oraindik ere Alemaniako erlojuari begira bizi gara gu, besteak beste.

Edonola ere, Irlandak duen ordu bera dagokigun arren, badirudi ordu-eremua aldatu baino lehenago hau ezarri zuenaren gorpuzkiak aterako dituztela dauden lekutik. Bazen ordua bai. Bitartean, Francoren erlojuak ordua ematen jarraitzen du.

Hiart Compaignon, (Elgoibar)
Muintetik transplantatuta eta 100 transfusio baino gehiago jasotako pertsona,
Transplantada de médula con más de 100 transfusiones



**Zuen odol tanta bakoitzak, nire bihotz taupada bakoitzean dirau.
Jarrai dezala euskal gizarteak odola ematen, gure gorputzetan zehar borborka zirkula dezan.
Eskerrik asko bihotzez emaile guztiei gure begiek dirdirka jarrai dezaten.**

Hiart Compaignonen argazkia eta esker oneko olerkia, urriaren 19ko hitzordua iragartzeko banatu den eskuorrian.

Nagusilan Debabarrenak jasoko du Gure Balioak Saria

Aurtengo Gure Balioak Saria Nagusilan Eibar, Elgoibar, Ermua, Soraluze, Mutriku eta Debako elkarteek jasoko dute, bakartasun egoeran dauden adineko pertsonekin egiten duten lan boluntarioarengatik.

Debabarrena eskualdeko gizarte, enpresa eta hezkuntza arloko bederatzita lagunek osatzen duten epaimahaiak Nagusilanen “izaera altruista eta erantzukizun sozialeko printzipioa” goraiatu ditu: “elkartasun, eskuabaltasun, konpromiso eta inplikaziorik

gabe, boluntarioen parte hartzea ezinezkoa izango litzateke”. Hogei urte baino gehiago daramatza lanean Nagusilanean eskualdean eta gaur egun adineko 300 bat lagunenganaino iristen da proiektua.

Azaroaren 14an jasoko dute saria, Eibarko Koliseo Antzokian (19:00etan).

Debegesaren ekimenez eratu zen Gure Balioak Saria, 2010. urtean. Eskualdean gizarte balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo erankundea aitortzea du helburu.



Debarrak munduan

ANA IPARRAGUIRRE

“55 urte ditut, irakaslea naiz eta gustuko dut irakurtzea eta Deba bisitatzea”. Datu horiek eman dizkigu Ana Iparraguirrek bere burua hitz gutxitan aurkez dezan eskatu diogunean. Alemaniara joan zen 1989. urtean eta harrezkero bisitan baino ez da etortzen Debara. Baden-Württemberg estatuan kokatutako Königsbach-Stein udalerritik erantzun ditu *Berriketan*-ek egindako galderak.



Ana (ezkerretik hasita hirugarrena), Deban bere familiarekin.



Familia eta lagunekin, Alemanian bizitokian.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

Alemanian Königsbach-Stein udalerrian nago. Nire senarra alemaniarra delako eta momentu honetan nire lanbidea ere Alemanian dagoelako bizi naiz bertan.

Zerk eraman zintuen horra? Nire gizona ezagutzeak.

Zertan zabilta orain?

Urtero bezala, oporren ostean, ikasturte hasiera antolatzen nabil orain poliki-poliki.

Espero zenuen bezalakoa da Alemania? Zerk harritu zintuen?

Bai eta ez; ez nuen ezagutzen eta ondo moldatu naiz. Hizkuntza nahiko zaila da, adibidez, baina hizkuntzarik gabe ez dago integrazioa.

Zure egunerokoan euskarak

zein leku du?

Oso leku txikia du, baina ikasleekin Deban nagoenean poztu egiten naiz, beste irakasleekin eta ikasleekin euskaraz hitz egiterakoan. Gaztelerako nire ikasleekin udaberrian izan nintzen Deban eta inguruetan.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Beno, dialektoa badago, baina nik aleman akademikoa hitz egiten dut.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Nire familia eta itsasoa.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bizitzera urte osoan ez dut uste, baina gustatuko litzaidake Deban denboraldi luzeak pasatzea. Dena den, oraindik laneko kontuak direla eta, oporretan bakarrik azaltzen gara Debatik.

Laburrean

Paisaia bat:

Debako hondartza, Itziarko buelta, Santa Katalinatik ikusten den itsasoa

Usain bat:

itsasoaren gatz-usaina, kresalarena

Zapore edo jaki bat:

nire nebak baratzetik ekarritako tomateak eta lekak

Gustuko dut...

irakurtzea, hizkuntza ezberdinetan hitz egitea eta hizkuntza berriak ikastea. Baita gazteekin lan egitea ere

Ez dut gustuko...

komunikatzeko modu berriak direla eta, elkarren arteko harremanak eta komunikazioa bide arriskutsua hartzen ari direla ikustea

Amets bat:

mahai baten inguruan kontu-kontari egotea familiarekin, familia osoarekin: amarekin, aitarekin, nire hiru nebekin, aitxitxa eta amamarekin eta, noski, familiako gazteekin ere bai!

Urriaren 26an ospatuko da Kolore Anitz Eguna

Kolore Anitz Aisialdi Taldea martxan da beste ikasturte batez eta adin orotako jendeari zuzendutako ekintzak antolatu ditu. Urriaren 26an ospatuko den Kolore Anitz Eguna izango da lehen hitzordua.

Egunaren hasieran etxe-ko txikiak izango dira protagonista. Goizeko 11:00etan altxorraren bila musikala eta oztropoz betetako zirkuitua antolatu ditu Haur zein Lehen Hezkuntzako haurrentzat. Arratsaldean, berriz, gaz-



teen txanda izango da. Poteoa alaitzeko kuadrillen arteko jolasak egingo dira eta Albokoak Jo Dezala txarangak musika-zirotuko dituzte herriko kaleak.

Kolore Anitz Egunaz gain, Zuhatza euskara elkarteak aisialdi taldeak bestelako hainbat ekimen ere antolatuko ditu ikasturte honetan. Hilabetero ekintza bat egitea aurreikusten du. Laster emango du egutegiaren berri.

Abian dago Deba Jazzez Blai banden lehia

Martxan da dagoeneko Deba Jazzez Blai festibalak antolatutako lehiaketa, jazzarekin erlazionatutako musika estiloa jorratzen duten taldeei zuzenduta.

Parte hartzaileek bi abestiren grabaketak bidali beharko dituzte abenduaren 1a baino lehen. Epaimahaiak horietatik sei aukeratuko ditu urtarrila edo otsaila bitartean antolatuko den kontzertuan parte hartzeko. Sei horie-


tatik bat publikoak aukeratuko du (sare sozialen bitartez egingo duten galdeketa baten emaitzekin) eta gaitzatzeko biak epaimahaiak hautatuko ditu. Hiru talde irabazleek Deba Jazzez Blai Festibaleko udako edizioan jotzeko aukera izango dute.

Oinarriak ikusteko eta informazio gehiagorako: debajazzezblai@gmail.com eta Deba Jazzez Blai Festibalaren facebook orria.

“Oteiza 50 urte Deban” jardunaldiak antolatu zituen Kultur Elkarteak

Ondarearen Europako Jardunaldien baitan, Debako Kultur Elkarteak hainbat ekimen antolatu zituen urriko lehen asteburuan, “Oteiza 50 urte Deban” lelopean.

Debako Arte Eskolako zuzendari ohi Mikel Camposen hitzaldiarekin eta erakusketaren inaugurazioarekin abiatu zen egitaraua. Garai hartako ikasle batzuen lanak ez ezik, Arantzazuko Santutegian dauden apostoluen moldeak (Oteizarenak) ere izan ziren ikusgai erakusketan. Haurrentzako klarion tailerra ere eskaini zuen Camposek.



Irudiak:
Ander Salegi



NEKANE GOIKOETXEA

H bategatik

Eta euskaldunok, geu, H bategatik otsoak bezala elkarrekin... salatzen zuen Joxe Azurmendik 1992an. Arantzazuko biltzarrean adostu zuen 1968an Euskaltzaindiak euskara batuan H letra erabiliko zela. H haren atzean, ordea, ikuspegi oso bat ezkutatzen zen.

Eta jarraitzen zuen Azurmendik: Merez al du euskal kulturagintzan aritzeak? (...) Segun zer nahi dugun. Gizamortu nahasi bat nahi badugu (...) utz gauzak bere kasa ibiltzen, ez dago zergatik nekatu. Eta, azkenean, (...) tortila espainola izango da, zartagin honek frijituko duena, Euskadi askatuan nahiz askatu gabean.

Kulturaren aldeko jarrera ausart horrek ematen dio testuingurua Gasteizen jaio zen HERTZAINAK taldeari. H batek ezberdintzen du taldea polizia autonomikoaren ize-netik, herria zaintzera datorren kultur proposamena. Zenbat gauza ez ote diren ezkutatzen H baten atzean oraingoan ere: 80. hamarkadako instituzionalizazioari begirada kritikoa, gizamortua euskaratik astintzera zetorren proposamen estetikoak, euskal politikagintzari barne kritika eta, ororen gainetik, kulturaren potentzial politikoaren esperientzia ezinbestekoa.

10 minututan saldu dira Bilbon kontzertuetako sarrera guztiak. Esanguratsuen iruditzen zait nola itzuli diren eszenara. Jada ez dira lehengoak, Josu Zabala eta Gari ageri dira oholtzan beste musikari batzuekin, beste estetika batekin. Mezu berriak daude oholtza gainean, ikusi nahi dituenarentzat. Heriotzaren Ha ikusten dut nik. Bere burua hil duen Garirena, Ave Fenixaren antzera bizirik, berrirakurriz iragana eta bidea erakutsiz eta, aldi berean, balioan jarriz izan ginenaren atzean zegoen festa eta Arabako patatarekin egindako tortila. Atzean bi birika eta bihotz bat taupadaka, Aitor Oñederraren irudiak, gizamortuko pinuei begira.

Itziarko auzia elkarlanaren bitartez gainditzeko "borondate irmoa" agertu dute

Urriaren 16an agerraldia egin zuten Gilen Garcia alkateak eta Itziarko Auzo Udaleko alkate Arantza Egañak, aurrerantzean elkarlanean aritzeko prestutasuna azalduz.

Itziarko herritarren urteotako bidea ez dela samurra izan aitortu ondoren, Debako udal gobernuak etorkizunari begiratu nahi diola azaldu zuen Garciak: "Garai berriak dira hauek, hemen ez da izango ez lehen ezta bigarren mailako biztanlerik ere, hemen ez dago areriorik, are gutxiago etsairik".

"Udalgintzan sinesten dugunok pertsonen hobe beharrez lan egin behar dugu -gaineratu zuen-. Gu denon ongizatea da helburu eta zeregin horretan akordioa da giltza. Debako udal gobernu hau eraikitzeke dago, ez deuseztatzeko, horregatik Itziarren eta Debaren arteko aspaldiko auzi hau gainditu egin behar dugu, inork ezin du galdu, guztiok irabazi baizik".

Debako alkatearen esanetan, "indar politikoen arteko adostasuna behar da, gehiengo zabala behar da, baina ez dugu ahaztu behar galbiderik ez dagoela, bidea zehatza dela. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015 urtean onartutako 3/2015 Foru Araua jarraitzea besterik ez dago. Orain inork ez dezala tentaziorik izan araudia bihurtzeko, modu batez edo bestez gu guztion elkarbizitza okertzeko, hemen inork ez du hori merezi eta".

Ildo berean aritu zen Arantza Egaña Itziarko auzo alkateak: "Gu ez gara etsipenean murgildu, ez dugu inoiz izan amore emateko tentaziorik, Itziarko Auzo Udalaren bidez gure helburua bizitza kalitatea hobetzea baita: bizigune garbi bat nahi dugu, osasun arloan ahalik eta zerbitzu onena izan nahi dugu, kultura politika aberasgarria behar dugu, landa eremua eta paisaia babestu nahi ditugu, gure ume, gazte eta helduak eroso bizitzea nahi dugu, euskaraz, inolako diskriminaziorik gabe, aniztasunean eta elkartasunean oinarritutako Deba eta Itziar nahi ditugu. Herri parte hartzaile bat dugulako buruan".

"Itziarren eta Debaren arteko gatazkak urte luzez iraun du



-esan zuen-. Urte askotan gure nahiak zapuztu egin dira, urte gehiegitan sentitu gara alboratuak, bigarren mailakoak bagina bezala. Esfortzu handiak bideratu ditugu auzia konpon zedin, baina zoritxarrez esan behar dugu Debako Udalaren partetik ez dugula harrera onik izan, are gehiago, batzuetan gutxietsiak ere izan gara. Kontrakotasuna handia izan da, ukazina da hori, duela ez hilabete asko Itziarko Auzo Udala kolokan jarri nahi zuen ekimen judiziala ere burutu zen. Auzitegietara eraman gaituztenean defendatu gara, epaiek gure alde egin dute, baina antza denez, hori ere ez da nahikoa izan".

"Komunikazio kanal egonkorra"

Horiek hala, konpromisoa hartu dute biek harremanak normalizatzeko. "Debako udal gobernuak borondate politiko irmoa du Itziarko auzia behin betiko gainditzeko, justiziazkoa delako eta, lehen esan bezala, denok irabaziko dugulako. Komunikazio kanal egonkorra zabaldu dugu ikuspegiak partekatzeko eta, ondorioz, Itziarko Batzordearen fase berri bat hasiko dugu, eraikitzeke tresna izango dena, egonkorra eta eraginkorra, datorren astean bertan bilduko dena", esan zuen Garciak.

Indar politikoen eta erakundeen arteko elkarrizketa bultzatzeko eta araudiak esaten duena jarraitzeko konpromisoa ere berretsi zuen Debako alkateak. "Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Foru Arauari jarraituta, auzo udalari dagozkion kompetentziak errespetatuko ditugu, kompetentzia horiek aurrera eramateko".

Kataluniako buruzagi politikoen aurkako epaia salatu dute

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Deban ere mobilizazioa egin zuten hamarnaka lagunek urriaren 14an Kataluniako agintariei elkartasuna adierazi eta euren aurkako epaia salatzen. *Erreferenduma ez da delitua. Askatasuna* lelopean egin zen elkarretaratze zarata-

tsuan parte hartzeko deialdia.

Espainiako Auzitegi Gorenak bederatzita eta hamahiru urte arteko kartzela zigorrak ezarri dizkie Kataluniako erreferendumaren auziarengatik epaitu eta espetxeratutako buruzagi independentistei.



Azaroaren 10ean izango dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeak

Datorren azaroaren 10ean izango dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeak. Pedro Sanchez (PSOE) jarduneko presidentek irailean jakinarazi zuen inbestidura saio bat egiteko negoziazioek huts egin zutela guztiz, eta hauteskundeak egingo zirela esan zuen. Aurten herritarrek hautetsontzietan botoa ematera deituta dauden hirugarren aldia izango da; apirilaren 28an egin ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundeak eta maiatzaren 26an, aldiz, Europarako, Udaletarako eta Batzar Nagusietarakoak.



“Arazo kolektiboetara irtenbide kolektibo bat emateko sortu da Kultur Mahaia”

Herriko kultur esparruan dauden hutsuneei erantzunez, kultur eragile eta norbanakoen arteko koordinazio eta elkarlanerako gunea sortu da Deban, Kultur Mahaia. Aurkezpen bilera egin zen joan den urriaren 16an Agirre jauregiko ispiluen gelan eta 70 bat herritar bildu ziren bertan. Bidea hasi berri duen proiektuaren bueltan dabilzan zenbait herritarrekin aritu gara *Berriketan*, herri-ekimenaren nondik norakoak hizpide hartuta.

Nolatan jaio da proiektu hau? Zergatik edo zertarako?

Hilabete batzuk pasa dira martxan jarri ginenetik. Hasieran, kultur eragile ezberdinetako hainbat kide era informalean bildu ginen Debako kultur egoeraz kezkatuta. Lehenengo momentutik argi ikusi genuen kultur eragileen beharrei modu kolektiboan erantzungo dien esparru bat sortzea beharrezkoa dela. Orain artean, eragile bakoitzak bere kabuz saiatu da bere beharrak Udalaren laguntzaz konpontzen; eragileen arteko elkarlanari ez zaio aukerarik eman. Arazo kolektiboetara irtenbide kolektibo bat emateko sortu da Kultur Mahaia.

Herriko kultur eragileen beharrak aipatzen dituzue. Zer nolako beharrez ari gara hizketan?

Kultur eragileok gure jardunak aurrera eramateko dugun azpiegitura faltaren inguruan sortu zen proiektu honen hasierako ideia. Hori hala, eragile desberdinekin modu indibidualean batu eta bakoitzaren iritzia jaso genuen. Hortaz, lehen ideiak kulturagune proiektu bati bideratutakoak izan ziren.

Eta ildo horretan jarraitzen duzue lanean? Alegia, zuen ustetan, azpiegitura falta da egungo arazo nagusia?

2007an herriko zinema itxi zenetik, azpiegitura baten beharrak eragile askoren ekintzak mugatu ditu; esate baterako, musika eskolari kurtsu bukaerako ekitaldia egiteko tokia falta zaio edo antzerki eta dantza ikuskizunak egiteko lekurik ez dago, pelikulak proiektatzeko gune egokia falta da... Ideia horri helduta hasi ginen lanean eta prest agertu ziren eragile guztiekin bilera zabal bat egin genuen.

Hala ere, horretan hasi eta berehala jabetu ginen azpiegitura arazoa ez ezik, beste hainbat gabezia ere bagenituela; eragileen arteko koordinazio eta elkarlan falta da larrietako bat.

Zelan joan dira orain arteko urratsak edo hartu-emanak?

Hasierako kontaktuetan kultur esparruan dabilzan herriko eragile guztiekin edo gehienekin batu ginen, 30 kolektibo inguru. Orain arte egindako bileretan parte hartze zabala izan dugu, bilera guztiak jendetsuak izan direla esan genezake.

Aurkezpen bileran azaldu zenutez, Kultur Mahaiaren antolakuntza eredu ere adostu duzue nolabait azken hilabeteotan, ezta?

Bai, hala da. Proiektu honek herriko kultur gabeziei erantzun integral bat ematea helburu duenez, identifikatu

ditugun beharrei erantzungo dien antolakuntza eredu bat adostu dugu.

Zein eredu da hori?

Batetik, **Kultur Mahaia** izango dugu; eragileen asanblada orokorra da, herriko kultur dinamikaren koordinazio gunea, proiektuaren erabakigunea.

Bestetik, **Zubeltzu Iruten** legoke, zinema zaharra kulturagune bihurtzeko proiektuaren asanblada. Talde hau Kultur Mahaiaren hartzaren diren erabakien menpe egongo da, baina azpiegitura beharrei erantzuteko aukerak aztertu eta kulturagune proiektua lantzeaz arduratuko da.

Era berean, aipatutako proiektu horiek gidatu eta dinamizatzeke, lan talde ezberdinetako ordezkariak osaturiko **talde motorea** sortuko da.

Helburu edo erronka potoloak jarri dituzue mahai gainean...

Oraindik proiektu gaztea da, erronka handiak ditugu eta lanean hasi besterik ez gara egin, baina anbizio eta ilusioz beteta gaude. Besterik gabe, proiektu honetan interesa duten kultur eragileei eta norbanakoei parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Informazio gehiago nahi izanez gero, debakokulturamahai@gmail.com helbide elektronikoa ere eskuragarri duzue.

Jar gaitezen. Has gaitezen iruten!

Martxan da Mintzalaguna egitasmoa, "Tú-tik Gu-ra" lelopean

Ikasturte berriarekin batera, martxan da Mintzalaguna egitasmoa Deban. Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatzen du ekimena, Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, eta urrian zabaldu du izen-ematea. Dena den, ikasturtean zehar ere egongo da ekimenarekin bat egiteko aukera (eginak dauden taldeetan sartuko dira herritarrek). Ekainean ematen zaio amaiera programari.

Euskaraz bizi nahi dutelako, beldurrei aurre egin nahi dietelako, ahaztutakoak berriaz gogorarazteko edota euskaraz goza-



tzeko, arrazoi ezberdinak medio, gaur egun 22 herrialde desberdinetan 6.000

lagunek baino gehiagok hartzen dute parte egitasmo honetan eta aurten kopuru hori igotzeko asmoa dago. Egitasmo arduradunek "Tú-tik Gu-ra. Ongi etorri mintzalagunon mundura" salto egiteko gonbidapena luzatu diete euskaltzale guztiei, euskaraz lagunartean, modu eraginkorrean eta giro ezin hobean aritzeko.

Beraz, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera; bai euskara praktikatu nahi dutenak eta baita euskara praktikatu nahi duten horiei laguntzeko prest daudenak ere.

•Zer da Mintzalaguna?

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko programa da.

•Zertarako balio du?

Euskara hobetzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko...

•Nola funtzionatzen du?

Astean behin, ordubetez, talde txikitant biltzen dira mintzalagunak. Paseoan, kafetegian... egiten dituzte saioak. Partaideen euskara maila, afizioak, ordutegiak... kontuan hartuz sortzen dira taldeak. Asteroko hitzorduetan ez ezik, noizbehinka ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera ere izaten da.

•Nori zuzenduta dago?

Interesa duen orori. Euskaraz komu-

nikatzeko gutxieneko maila izatea eta astean ordubetez batzeko konpromisoa hartzea da parte hartzeko baldintza bakarra. Mintzalaguna doan da.

•Nola eman daiteke izena?

Zuhatza Euskara Elkartearekin harremanetan jarrita (Ifar kalea 12, behean). Informazio gehiagorako: koordinatzailea@zuhatza.com, labur.eus/Zuhatza, 943 19 13 83 / 632043322.

Azaroan egingo da Euskaraldiari buruzko aktibazio saioa

2020ko Euskaraldia prestatzen hasteko lehenbiziko bilera irekia joan den irailaren 24an egin zen Deban. Bertan, 2018ak emandakoa, iazko Euskaraldiak iraun bitartean ikusitako indarguneak nahiz hutsuneak eta, besteak beste, aurrera begirako proposamenak izan zituzten hizpide.

Euskaraldiaren bigarren edizioan jarri nahi da orain arreta. Hizkuntza ohiturak aldatzen jarraitzeko erronkari helduta, ari-

keta soziala 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4a bitartean gauzatu da bigarrenez.

Prestaketa lanak abiatze aldera, Deban azaroaren 29an egingo da Euskaraldiaren inguruko hurrengo deialdi publikoa. Aktibazio saioa egingo da Kike Amonarrizekin, ispiluen gelan (18:30ean). Herritar guztiak daude hitzorduan parte hartzera deituta.

Tene Mujika bekaren XIV. deialdia egin dute, historia hurbilaz idazteko

Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak XIV. Tene Mujika Beka sortu dute. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari.

Gure herriaren azken 70-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarriketak, ikerketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitatea eta gaiaren interesa. Ez da



fikziorik onartuko baina bai materialaren lanketa literarioa, idazleak hala nahiko balu; dibulgazio-lanak bezala egin litezke ikerketak, baina ez espezialistentzat bakarrik idatzitakoak.

Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak aztertuko ditu jasotako proiektuak, eta horien artean bat hautatuko du 2020ko urtarrila baino lehen, ikerketa lana bururaino eramateko.

Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Oinarriak ikusteko eta informazio gehiagorako: www.deba.eus eta artxiboa@deba.eus.

“Debako Euskararen Historia Soziala” jasotzen duen DVDa plazaratu dute



Euskal Jaiaren atarian aurkeztu dute jendaurrean gure hizkuntzaren historia soziala jasotzen duen dokumentala.

Duela lau urte abiatu zen Debako euskararen historia soziala ezagutzeko ikerlana. Historiaurretik hasi eta XX. mendera arte Deban izan den bilakaera soziolinguistikoa aztertu zuten Iñigo Ramirez de Okariz eta Nekane Goikoetxea HUHEZIKo irakasleek, eta ikerketaren emaitzak liburu batean jaso zituzten, “Debako euskararen historia soziala” izenburupean. Liburua 2017ko abenduan aurkeztu zuten, Agirre jauregian, eta orduantxe iragarri zuten liburu horretan oinarritutako ikus-entzunezkoa ere egingo zela, jendeak modu arin eta

didaktikoagoan herriaren historia ezagutu dezan.

Bada, dokumental horrek oraintsu ikusi du argia (DVD formatuan); etxetan banatuko dute, eta laster interneten ere izango da ikusgai, Debako Udalak jakinarazi duenez.

Zenbait herritarren laguntzarekin ondu da ikus-entzunezkoa: besteak beste, Mariaje Aranburuk eta Nekane Goikoetxeak historiaren azalpen eta interpretazioak egin dituzte; Jose M. Etxabe, Itziar Altzibar, Joxe Mari Altzibar, Begoña Arostegi, Maritxu Aizpurua eta Joxe Mari Larramendik euren bizipenak kontatu dituzte; eta Ana Alberdi eta Amaia Otaolak dokumentala grabatzeko lanak egin dituzte.



Euskararen transmisioa errazteko infografiak prestatu dituzte eskualdeko gurasoentzat

Gurasoek sarri izaten dituzte hizkuntzen ikaskuntza prozesuaren eta erabileraren inguruko zalantzak eta kezak. Horregatik, Debabarreneko udalek gurasoentzat lagungarri izan daitekeen materiala prestatu dute, oraingo honetan infografia formatuan.

Bi infografia prestatu dituzte, bata euskaraz (*Euskaratik eleaniztasunera*), eta bestea, gaztelaniaz (*Desde el euskera al plurilingüismo*). Azaldu dutenez, ez dira erabat berdinak, “euskarazkoa euskaraz dakiten gurasoen kezka eta beharizanei begira prestatu baitugu, eta gaztelaniazkoa, berriz, euskaraz ez dakitenen beharrei begira”. “Material hau eskoletan ere erabiltzea nahi genuke, irakasleek gurasoekin egiten



dituzten bileretan bereziki, oso lagungarri izan daitekeelako euskarak eleaniztasunerako bidea errazten duela erakusteko”. Bestalde, mezua ahalik eta gehien zabaltzeko, WhatsApp-erako bertsioak ere prestatu dituzte eta udalen web orrietan ere ikusgai daude.

Debabarreneko udalek Eibarko Estilográfico enpresaren laguntza izan dute infografiak prestatzerakoan.



“Arnasa Gara” ekimena Itziarrera ere iritsiko da

“Arnaguneak euskarari hauspoa ematen” lelopean, *Arnasa Gara* ekimena aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA). Proiektuaren helburua da euskararen “arnaguneetako herritarrak ahalduntzea”, aitortza eta kontzientzia indartzea, bertako biztanleak euskararen indarberitzean duten garrantziaz jabetzea. Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak ere babesten dute proiektua.

Ekimenak bi fase izango ditu. Lehenengoan, arnaguneetara zabalduko da mezua. Aurkezpen ekitaldiak egingo dituzte urria eta azaroa bitartean Euskal Herriko 22 udalerritan, tartean Itziarren. Urriaren 26an (larunbata) egingo da saioa, 19:00etan, Burugorri aretoan. Besteak beste, ekitaldietan primizian erakutsiko dira abendutik aurrera kaleratuko den eta arnagune diren sei udalerrri desberdinetako pertsonak protagonista izango dituen *Kartzela* serie digitalaren lehen bi kapituluak –Hiru Damatxo ekoiztetxeak sortu du ikus-entzunezkoa–.

Bigarren fasean, berriz, ekimena Euskal Herri osora zabalduko da, arnaguneen errealitatea eta garrantzia ezagutzera emateko. Abenduaren erdialdetik aurrera ekingo diote bigarren faseari.

Debako Udala, UEMAREN batzarrean

2019-2023 agintaldiko lehen batzar nagusia urriaren 5ean egin zuen UEMAK, Getarian, eta Iraitz Lazkano Elgetako alkatea hautatu dute batzarkideek UEMAREN lehendakari, hurrengo lau urteotarako.

Debako Udalak jakinarazi du batzarrean parte hartu zutela Gilen Garcia alkateak eta Aritz Larrañaga euskara zinegotziak. Alkatearen esanetan, agintaldiaren hasieran, “besteak beste, Deba euskaldunago baten alde lan egiteko konpromisoa hartu genuen. Arnaguneak estrategikoak dira ildo horretan eta ezinbestekoa da UEMA”.

EUSKAL JAIA 2019

Hona hemen aurtengo Euskal Jaiak utzi digun irudi bilduma ederra.

Eguraldia lagun, giro paregabea izan genuen irailaren 28an eta lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi. Gurekin batera festan murgildu zirenak, dena txukun antolatzen lagundu zuten boluntarioak, musikariak, erraldoi eta buruhandiak, joaldunak, dantzariak, marmitako lehiaketako partaideak, Zuhatzaren zozketarako produktuak oparitu zituzten ekoizle eta baserritarrak...

Mila esker bihotz-bihotzez guztioi!!





Berriketan gaztea



Prentsa tailerra 2019-2020

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

BUELTAN GAUDE!

Urtebeteko etenaldiaren ostean, gazteen atala bueltan dator **Berriketan** aldizkarira. Aurreko ikasturte bukaeran prentsa tailerrean izena ematea eskaini zigutenean, oso aukera ona iruditu zitzaigun hainbat ikasleri. Lagun askok eman genuenez izena, aurten taldea sortzea lortu dugu eta oso zoriontsu gaude.

Aurten hirugarren mailako hamahiru ikaskide gaude taldean: Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Eskola hasi zenetik, zazpi bat aste pasa dira. Lehenengo egunean aurkezpena izan genuen, oso urduri geunden ikasle gehienok, batez ere lehenengo mailakoak.

Aurkezpenak 11:00etan izan zuen hasiera, baina 10:55erako denak geunden ikastetxeko sarreran. Ez geunden batere gogotsu, bagenekien uda faltan botako genuela. Urtero bezala, jolas-tokiko horman zeuden itsatsita ikasgela bakoitzeko ikasleen zerrendak. Ikasle guztiok korrika joan ginen bakoitzaren ikasgela zein izango zen jakiteko gogoz.

Txirrinak jo bezain laster, ikasle bakoitza bere tutoreare-

kin elkartu eta gelara joan ginen korrika, azkenengo ilaran lekua lortu nahian. Aurkezpenak ordubete bat iraun zuen, gutxi gorabehera.

Aurkezpenean, ikasturtean zehar zer egingo dugun azaldu zigun irakasleak eta, horrez gain, ordutegiak eta agendak eman zizkigun. Ordubete iraun arren, ez zitzaigun luze joan, lagunen artean geundelako eta ondo pasatzen ari ginelako.

Hurrengo egunean klaseak ematen hasi ginen, baina lehenengo hilabete osoan, hau da, irailean, goizez bakarrik aritu ginen eta motza egin zitzaigun. Orain, urrian, goiz eta arratsaldez hasi gara eta arratsaldeetan denbora libre gutxiago dugunez, institutuan pasatzen dugun denbora luzeagoa egiten ari zaigu. Dena den, ez daukagu beste aukerarik, maiatzera arte horrela jarraitu behar dugu.

Aurtengo ikasturtean 228 ikasle eta 33 irakasle daude Mendata Institutuan, iaz baino bi ikasle gehiago.

Denbora bat pasa da ikasturtea abiatu genuenetik eta, oporetan hobeto egon arren, ez gaude kexatzeko moduan. Beti jarraitu behar dugu aurrera; izan ere, aurrera begiratzen ez duena atzean dago.

laguntzaileak:



babesleak:



ALDAKETA

KLIMATIKOAREN AURKA

Denok jakingo duzuen bezala, pasa den irailaren 27an, ostirala, Klima Aldaketaren Aurkako Eguna izan zen. Horren harira, greba deialdi orokor bat egin zen, eta gure ikastetxeko 4. mailako ikasleek ere grebara deitu zuten. 118 bototatik 117 baiezkokoak izan ziren, bakar bat ezezkoa eta ez zen izan boto zuririk.

Donostian izan zen Gipuzkoako manifestazio nagusia eta gu ere bertan izan ginen. Deban 10:40ko trena hartu genuen Donostiarantz. Iritsi bezain laster, Amaran topotik irten eta Boulevardera abiatu ginen.

Manifestazioa eguerdiko 12:00etan hasi zen Boulevardean. Bertako kioskoan gizon bat hitzaldi bat ematen hasi zen eta ondoren, ibilbide bat egin genuen, Donostiako kostaldetik eta ibaiaren ertzetik. Manifestazioan zehar hainbat kartel ikusi genituen. Guk, berriz, ez genuen kartelik eraman, baino oihuen bidez egin genituen aldarrikapenak. Gutxi gorabehera 5.000 bat pertsona joan ginen. Bertara hainbat ezagun joan ziren: Alba Flores, Javier Bardem...

Manifestazioa 14:00ak aldera amaitu zen. Juantxora abiatu ginen ogitartekoak jatera eta, bukatzean, bueltako trena hartu genuen. Arratsaldeko 18:00etan, Alderdi Ederren beste manifestazio bat burutu zen, baina ez ginen joan.

Nahiz eta hainbat pertsona agertu egun batean aldarrikapenak egitera, horrek ez du esan nahi egunez egunekoa aldatuko denik. Beraz, egunerokotasunean bakoitzak bere parte jarri behar du mundua buka ez dadin...



BA AL ZENEKIEN...



Gaur egun, alkohola normalizatuta dago mundu osoan zehar. Pertsona askok beraien egunerokoan kontsumitzen dute, baina ba al zenekien...

...Egipton umeez ere garagardoa edaten zutela?

Egipton, K.a. 2000. urtean, umeez garagardoa edaten zuten, eskolan edatea derrigorrezkoa baitzen.

...koktelak alkoholaren debekuaren ondorioz sortu zirela?

Kalitate eskaseko alkohola disimulatzeko, tabernariak fruta zukuekin eta espezia aromatikoekin nahasketak egin zituzten.

...frutek eta barazkiek alkohola dutela?

Barazki eta frutek beren konposizio kimikoan alkohol kopuru txiki bat dute.

...edaterakoan neuronak ez direla hiltzen?

Edan eta ondorengo egunean zure burua normaltasune-



ra bueltatzen da, neuronei ezer gertatu gabe.

...alkoholarengatik hiltzen diren gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa dela?

Gizonezkoek % 7 dute, emakumeek % 4 duten bitartean.

Beraz, trago bat hartu aurretik ez al guke pentsatu behar zer dagoen alkoholaren atzean?

URRIAK 25, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.

URRIAK 26, LARUNBATA

-**Kolore Anitz Eguna.** Egitarau berezia izango du (ikus 9. orria). 11:00etan emango zaio hasiera.

-18:00. **VII. Manuel Mateos memoriala.** Deba Xtreme Kirol Taldeak antolatuta. Luzera: 9 km. Izen-emateak: www.herrikrossa.com.

-19:00. **"Arnasa gara"** ekimenaren aurkezpena, Itziarko Burugorri aretoan.

-22:00. **Kantaldia: Aire Ahizpak,** Kultur Elkartearen.



AZAROAK 1, OSTIRALA

-XXVI. Itziarko Peria.

Goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara, Itziarko politgonoan. Urtero bezala, bertan izango dira artisauak, talogileak, ganadua, makineria, kinkileroak eta abar. 12:00etan, Urrezko Aizkora jokatu da (aurkezpena eta lehen saioa).

AZAROAK 3, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua: Gotikoaren albiorra,** Debako Santa Maria elizan. Informazioa: www.deba.eus.

AZAROAK 4, ASTELEHENA

-19:00. **Bideo-foruma: "Alejandro eta Ines. Kulturen arteko zubia"** (Joseba Bakaikoa -Kaputxinoa-), Agirre jauregian. Erakusketa gelan **"Amazonia"** erakusketari jarriko dute ikusgai azaroaren 4tik 10era.

AZAROAK 10, IGANDEA

-Espainiako gortetarako **hauteskundeak.**
-16:30. **Haurrentzako zinea,** Kultur Elkartearen.

AZAROAK 17, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak,** Agirre jauregian. 17:00etan: Haur Hezkuntzakoentzat/ 18:00etan: LHkoentzat (Azaroaren 25eko egitarauaren baitan antolatuta).

AZAROAK 22, OSTIRALA

-**Santa Zezilia** eguna.
-17:00. **Odol ematea,** Luzaro eskolan.
-18:30. **"Beldur Barik"** topaketa; lehiaketaren sari banaketa eta luntxa, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

Kinto bazkaria

-1960. urtean jaiotakoekin kinto bazkaria egingo dute urriaren 26an (larunbata). Eguerdikio 13:00etan elkartuko dira guztiak Foruen plazan eta 15:00etan bazkaria egingo dute Zalburdi tabernan. Parte hartu nahi duenak Zalburdi tabernara jo beharko du izena ematera (**"Kintos del 60"** izenpean).

Lehiaketak

-Abian da gazteei zuzendutako ikus-entzunezko **Beldur Barik** lehiaketaren 10. edizioa, **"Ados gaude!"** lelopean. Emakumeek jasaten dituzten bereizkeria-egoerei aurre egiten dieten arte-adierazpen mota guztiak onartu, baloratu eta bultzatzea du helburu. 12-26 urte bitartekoek har dezakete parte. Azaroaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira lanak. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

-Martxan jarraitzen du **Deba Jazz Blai** festibalak antolatutako banden lehiaketak, jazzarekin erlaziozko musika estiloa jorratzen duten taldeei zuzenduta. Lanak abenduaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiagorako: debjazzblai@gmail.com eta Deba Jazz Blai Festibalaren facebook orria.

-**Tene Mujika Bekaren XIV.** deialdia egin dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz. 6.000 euroko diru-laguntza jasoko du irabazleak. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: www.deba.eus eta artxiboa@deba.eus.

WhatsApp zerbitzua eta neguko ordutegia Turismo Bulegoan

-Debako Turismo Bulegoak **WhatsApp zerbitzua** erabiliko du udal albisteen eta herriko kultur eta kirol jardueren berri emateko. Interesa izanez gero, izena eman beharko da ondorengo estekan: <https://labur.eus/DebaberriKulturAgenda>.

-Neguko **ordutegia** du dagoeneko Turismo Bulegoak: astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 14:00etara, ostiral eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara.

Ikastaroak KZgunean

-KZguneak goizeko ordutegia (9:00-13:00) izango du urrian, eta arratsaldez arituko da azaroan (16:00-20:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: IT-Txarteleko azterketak, Metaposta gordailurako izapideak, facebooka zure smartphonean, oinarriko interneta... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 edo www.kzgunea.eus.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **azaroak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.**

Burgoa Zuazo: **urriak 25, 26, 27.**
azaroak 4, 5, 6, 7.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 9 eta 16

BURGOA ZUAZO: urriak 26 / azaroak 2

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

MARIJE CASTRO Iribarren



MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615 **DEBA**

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

SO URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otarkeoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain
Deba

WiFi

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



k
kutxabank

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

TÚ

-TIK

GU

-RA

ONGI ETORRI

MUNDURA!

MINTZALAGUNA



mintzalaguna

IZEN EMATEA: URRIAN
labur.eus/Zuhatza_Deba
943 191 383

Antolatzaileak

Babesleak

